

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BASQUETOUR, TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA, SA, ITELAZPI, SA ETA NEIKER-NEKAZAL IKERKETA ETA GARAPENERAKO EUSKAL ERAKUNDEA, SA-REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2015.

Joan den abenduaren 22an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia, SA, Itelazpi, SA eta Neiker-Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, SA EAEko sozietate publikoen ekonomia-finantzazko kudeaketaren fiskalizazio txostena onartu zuen, 2015eko ekitaldiari buruzkoa. Txostenari Osoko Bilkurako kontseilari batek boto partikularra jarri dio.

Txostenak ondorioztatu du hiru sozietateek **zuzentasunez** bete dutela 2015eko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia** eta ez-betetze bakar bat azaleratu dela Itelazpi, SAk argindarra kontratatzeke baliatutako kontratazio prozedurari dagokionez.

2015eko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du hiru sozietateetan.